

EUSKAL KULTURAREN HIBRIDAZIO PROZESUAK: TRIKITIXAREN KASUAREN AZTERKETA

Tesiaren egilea: Gurutze Lasa Zuzuarregui

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila

Tesi-zuzendaria: Mari Jose Olaziregi Alustiza eta Pio Perez Aldasoro

Tesiaren laburpena:

XXI. mendeko euskal kulturari berezkoa zaion hibridazioa du aztergai Mikel Laboa Katedraren laguntzarekin egindako ikerketa honek. Horretarako, maila teorikoan, hibridazio kontzeptuaren inguruan sortu diren hausnarketa eta eztabaida garrantzitsuenak aztertu nahi izan ditu Gurutze Lasa Zuzuarregui doktoreak «Globalizazioa aztergai: Erronkak eta Diziplinarteko Erantzunak» doktorego programan. Adibide praktiko moduan, berriz, modernitatearen eta tradizioaren arteko tentsioak irudikatu eta iragana-geroa edo lokala-globalaren arteko adibide garbiak eskaintzen dituen trikitixaren kasuan alderatu ditu eztabaida horiek.

2020ko maiatzaren 7an online defendatutako tesi-txosten hau osatzen duten atalei dagokienez, aztergaiaren abiaburua jasotzen duen sarreraren ostean, bigarren atalean, trikitixa kontzeptuaren adierak eta adierazpen musikal honen inguruan orain arte plazaratu diren askotariko lanen aipuak jaso ditu doktore adunarrak. Jarraian, hibridazio kontzeptuaren ezagutzan sakondu du hirugarren atalean. Horretarako, nozio horren inguruan mundu-mailako hainbat egilek egindako hausnarketa eta mahaigaineratutako proposamenak jaso ditu, lehendabizi. Trikitixaren bilakaeraren testigu izan diren landa-eremu eta hiriguneetan arreta jarri eta tradizioaren ardatz kontzeptualean sakontzea ere ahalbidetu dio, ondoren, nozio horrek. Hibridazio kontzeptuaren inguruan euskal eremu kulturean emandako hausnarketa, ekarpen eta erabilerak ere ezagutzera eman ditu segidan. Trikitixaren kasua aztergai izan duelarik, musikaren teoriariek nozio horretaz duten ikuspegia jasoz eman dio amaiera arlo teorikoari.

Laugarren atalean ikerketa-lan hau gauzatzeko baliatu duen marko metodologikoa definitu du egileak. Ondoren, bosgarren atalean, gure kulturari hain erroturik dagoen trikitixaren historia eta bilakaeran sakondu du, euskal kulturari berezko zaion hibridazioaren adierazpen gisa. Horretarako, lurraldeka egin duen ikerketa dokumental eta landa-lanaren emaitzak eman ditu, lehendabizi. Ondoren, arreta

berezia eskaini die adierazpen musikal honek bere bilakaeran zehar izandako hibridazio-prozesu etengabeak nabarmen eta polemikoki azaleratu zituzten Euskal Herriko Trikitixa Txapelketa Nagusiei. Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak, irakaskuntza eta musika-tresnagintzan diharduten artisauen jarduna ezagutzera eman ostean, trikitixaren sistemaren buru nabarmenenak diren trikitilariak arreta berezia eskaini die doktore adunarrak, segidan. Horretarako, esanguratsutzat jo dituen Tapia eta Leturia, Kepa Junkera, Esne Beltza, Gose, Huntza eta Koban taldearen ibilbidea ezagutu, diskografia analizatu eta kasuan abestien edukiak eta trikitixaren sisteman nagusi den genero-politikari egin dio kasu. Azkenik, ikerketa-lan honen ondorio nagusi eta aztergai izan duen trikitixaren inguruko ondorio eta ikerketa-ildo berrien proposamenekin eman dio amaiera Gurutze Lasa Zuzuarreguik, norbanakoaren hausnarketa kontziente eta kritikorako bitarteko ez ezik, bestearekiko harreman parekideak eraikitzen bideratutako aletxo bat gehiago izatea ere nahiko lukeen doktorego-tesiari.